

EUSKERAZKO

KONTUAK (1)

(Bergara-ko jai-aldietan *Aldeera* irabaziak.)

NERE ADISKIDE JUAN JOSE A...RI DONKITUAK

I

MARSELLA deritzayon Frantziyako portu ederrian, arkitzen ziran gudontzi asko, dierrri askotakuak. Elkar billera ura zala meriyo, egin zituzten festa aundiyak, eta egokiyak: estroparak, kukañak, tiña-jokuak; eta beste orlako itsas festa ederrak.

Azkeneko egunian jarri zuten saririk onena modu ontara:

«Ontziyik aundiyeneko egur-nausi edo palora zeñ geyena igo ta gero zein geyena jachi.»

Esan bezela zai zeuden zeñek egingo ote zuben lanketa gaitz ori, edo *markarik* aundiyena.

Lenengo igo zan *ingeles* musu gorri bat, eta iya makill muturrera irichi zanian, bildurtu ta ontzira jachi zan beriala; gero bestia, bañan ark ere jira eman zuben; urrena ere beste bat bañan..... mutur ark bildurra ematen zuben nonbait.

Ondoren Olanda-tar bat igo da baztarreko soka-eskalleratik, eta eutzirik sendo egurrari jan dijua! tontorrera; irichi zan bola muturrera, ta eskubakin eldu ziyon; an zerbait egonik jachi zan poliki, poliki, chalo ugariyak entzunaz.

Arren ondoren aleman batek ondu zuben aren malla, edo mar-

(1) Izkera errešago izatiagatik jartzen ditut itz batzuben oso euskerazkoak ez diranak, bañan jarri litezke jator.

ka, bada bola ikutu ezik bere gañean jarri zan eserita, gero jachirik ontzira.

Euskaldun mutill guri sendo batek ala diyo:

—¡Arranua pola! ni ere zuaitzetan ibiltzen oitua niagok, eta oyek egin dutena, naiz ill, egingo diat.

Oñutzik jarri ta eskuari chistu emanaz an dijua chimuben gisa; berialašen igo da, eta bolari ondo eldurik, oju bat egin zuben ¡aupa mutillak! ¡oraiñ dek gurial!: ta ¡razt! mutill koskorrak lurrian ankaiz gora jartzen diran bezela, jarri zan pultsuan egur-nagusiyen muturrian..... Orduan ziran chaluak, olagarak, irrintziyak, eskillak, ontzi chistuak, eta gañerakuak.

Modu artara zegon ontziyen balunbe ta guzi, denak begira bildurrez zeuden, zer atarramentu aterako ote zuben gizon bortitz arrek.

Nola jira eman gorputzari ta jaisten oso zalla zan abiyadura artu ziarka ta ¡aufa! esanaz bere burua bota zuben urera, arrastan ontziyen ertza ikutuaz.

Ur-pian erdi itotako bat bezela ibilli zan purrustara tartian, denak uste zuten *garbitu* zala: noizbait ur-azalera agertu zanian chikote bat botarik jaso zuten.

Berak parrez, parrez, diyo:

—Egiñ dezala oraiñ beste batek nik egin detana.

Saritu zuten esanaz, bestiak bañan geyago igo zala, ala berian jachi ere bai; zergatik beste lagunak ontzirañon jachi ziran eta ura beerago: itsasoraño.

Guztiyak esagutu nai zuten mutilla; inguratu ziran berarengana bostekua ematera.

Itsas-nagusi edo burusagiak bere aurrera deitu ziyon eta arriturik, eskuakin bizkarra joaz galdetu ziyon:

—¿Nongua zera?

Eta ala diyo:

—Euskalduna, jauna.

JOSÉ ARTOLA



EUSKERAZKO

KONTUAK

II

Sebilla-ra irichi ziran beñ ontzia batian lau mariñel euskaldun beste askoren artian.

Igandian, beren ontzitik portura, eta errira ere joaten utzi ziyoten.

Kaliak miratuaz zebiltzan baztarrak ikusten umore ederrian eta arkitu nairik ostatu modu oneko bat, pentsatu zuten norbaiti galdetzia.

Ontan azaldu da inguruan zelatari bizar aundi bat; eta Pellok ala diyo lagunari:

—¿Nai aldezute oni galdetzia?

—Bai galdetu akuyok, ik ondo dakik erderaz ta....

—*Oiguste selaor, ¿sabuste donde hay un posada buena, como de nosotros?*

—Bai; eskubitako eche ortan dezute bat.

—Oi, ¿euskalduna altzera?

—Bai jauna, serbitzeko. Ondarrabiko semia.

—¿Serbitzeko?

—Bai.

—Atoz gurekin batian, lagun zarra.

—Jaunak: ezin nindeke orain joan, bañan ichogoten badezute or, laister aldatu ta ordu erdi bat barru etorriko naiz.

Baita egiñ ere. Zeñek kontatu angó ayen gozotazuna; ez dute egun oberik pasa ayek, beren denboran; non elkarrekin anaitasunian igaro zuten ura.

Euskaldunak erriyan anayak badira, erbestian nola ez izan!

III

Donostiyako Brechan arkitzen zan beñ agin kentzalle berritsu bat; ur gorri batzubek saldutzen zituben aboa garbitzeko, eta noizik beñ

zintzarri bat joaz beregana biltzen zituben ikusmiran jende pilla. Esaten zuben:

—Jaunak, au da ur ona ta merkia, denak bear lutekena izan echean. ¡Au da, au, *ura ta ez ura!* Gañera, igo dadilla onera nai dubena, agiñak edo sustrayak kentzera, diru gabe kenduko diyozkat nai duben guziyari miñik egin gabe.

Au entzunik baserritar gizon batek; an dijua beregana esanaz:

—¿Diru gabe ateratzen alditu?

—Bai, eta aguro gañera.

—Orduan kendu bezaizkit..... lau edo bost.

Esan ta egiñ: ¡*Krik, krak!*, kendu dizka lau gordiñ gordiñak.



Eskarrikasko esanaz jachi zan gure pañano ori, eta batek galdetu zion:

—Aiskiria, ez daukazu sasoi makala: ¿miñ asko ematen alizutzen, edo zer?

—Bai zera; aurretik kontuak atera bear dira.

—¿Zer bada?

—Nik urrena miña izan ezkeru, pagatu egin bearuko nuben kentzia; eta oraiñ nola debalde dan, aprobechatu geroko ordez.

—¡Abejondaizula!

JOSÉ ARTOLA

EUSKERAZKO

KONTUAK

IV

Erri koškor batian aita bere semiarekin aritzen zan lanian dendacho batian: gošo ta pastelchuak egiten zituzten.

Aitak semeari erriyetan maiz ematen ziyon; etzan egunik mutillak zerbait gaizki egiten etzubenik; batian kiškaldu, bestian išuri, urrena zikindu, edo puntua galdu. Aitak diyo batian:

—Aizak Joše *trakatza*, i aizela meriyo gaizki giatzik geren irabaziyetan, eta etzaidak komeni nere onduan irukitzia; jalde egin zak emendik nai dekan tokiral, ez diat ire bearrik; bakarrik obeto izango nak, eta denda on baten jabe izan ere bai.

—¡Bañan aita!.....

—Trakatza ta trakatza.

—¡Bañan aita neria!.....

—Ua, lukainka ori, nere begiyen aurretik eta ez geyago azaldu nere aurrean.

—Juango naiz, bañan mengatuko diyot nik egunen batian.

—Egiñ zak nai dekana.

.....

Eskutatu zan mutilla; etzan urte batzubetan aren aztarranik.

Aitak bakarrik eraso ziyon lanari, bañan..... ala ere eziñ zuben bere asmoa osatu, beti eziñ irichirik, eta beñere bañan tristiago, bere buaruari esanaz: ¿Zertan esan niyon semeari joateko?, ¡itz ura zan bildur piska bat sartutziagatik! ¡Aldendu zan, ez dakit nora, !ay! bere trakas-tasunian emen baneuka aldamenian!

Igaro ziran urte batzuben elkarren berririk gabe.

Egun batian etorri zitzaion aitari eskutitz edo kartacho bat, barrenen milla pesetako paper bat zekala, ta onla zion:

«Aita neria: bizirik ikusi nai banaute, betoz ama ta biyak aguro. Lenbizi barkaziyua eskatzen diyot egindako oker guziyen gatik. Ni arkitzen naiz Paris-en, onlako gošo fabrikan; beon birajeko diru ori nere nagusiyak bigaltzen diyote.»

Au irakurri ta negarrari emanaz laztandu ziran aita-amak, esanaz elkarri: ¡Gisarajoa! agiyan berandu izango da; segiran guazen, bai, beriala.

Ala prestatu ziran eta askar joan ere bai.



Paris-ko estaziyora irichi ziranian, esagutu zituben beren jaskeran, ango fabrika-ko kocheruak. Euskalduna zan bera; ayen zai zegon, eta ikustiakiñ batian galdetu ziyeten euskeraz:

—¿Arraitzatik aldatoz?

—Bai, ala gatoz, gure semia ikustera.

—Sartu bitez nere kochian, beok eramateko agindea daukat, onlako fabrikako nere nagusiyaren izenian.

—¿Bañan gure semia obeto aldago?

—Bai, odo ondo, ez estutu.

—¿Eta nola moldatuko gera izketan nagusiyarekin, frantzesez ez baldin badakigu?

—Nagusiyak euskeraz badaki.

Jaungoikuak nai izango zuben suerte au izatia.

Irichi dira fabrika eder edo ekintzategi artara. Berrogei ta amar langille ari ziran lanian; ayen erditik pasa arazi dituzte, seme mintsua us-tez zegon gela ondoko sala eder batera, esanaz:

—Nagusiyak lenbizi itz bi egin bear omen dizkate.

Zer ikusiko ote zuten, erdi *dar dar* zai zeuden buru utzik jarrita.

Ontan alderatzen zayote jaun egoki bizardun bat, esanaz:

—¿Esagutzen al dute Arraitzako *trakatza*? Bada ni naiz.


¡Iya miñ egiñian gelditu ziran biyak!

—Nere guraso maitiak: ez naiz ni miñez egon, baizik lana ugari egiñaz urte abetan. Emendik aurrera ni naiz emengo nagusiya, ta emazte gaya lengo nere nagusiyen alaba det, euskeraz ederki dakiyena, ta ezkontzera nola nuan laister, nai izan det beokin batian bizi emen; ala berean, aita maite, nai badu bedorrek egingo ditu ondo dubenian, gure erriyan egiten zituben moduko pastelchuak, elkarrekin jateko, izan ditezen atsegiñezko oroitzak.

Modu ortara mengatu zuben aita, bere seme maitagarri orrek.

Euskal erritik atera izan dira len ere orlako gizon *trakatzak*.

JOSÉ ARTOLA



EUSKERAZKO

KONTUAK

IV

Udako goiz eder batian, erri chiki bateko erretore jauna ta alkatia irten ziran eizera; oso goiz irichi ziran mendi tontor bateko baserriko churi batera, ta ate ondolik oju egin zuten:

—Egun on echekuak.....

—Ongi etorri, erantzunaz, jaun ayen gana irten zan barrendik echeko andria, eta esan zi-yen:

—¿Goiz dabilta? Pasa bitez aurrera.

—Ez, eskarrikasko; inguru abetara gentozen gu, aidin artuaz, eize-rako asmoan; eta nola oraindik, goiza dan ozaltzeko, emen da-arkigu *chocolate* gor-diña, ta ordu bete barru etorriko gera emen pachara ede-rrian artzera.

—Ongi, ongi, nai duten bezela.


—Arbitzaba da; eta

eman ziyozkan ontza bi *chocolate*, esanaz: Jarri gero aztu gabe.

—Bai, jauna; nere kontu; ¿emendik ordu beterako esan dute noski?

—Bai; gero arte bada, baguaz alde oyetara.

—Bijuaz ondocho.



.....

Ordu betian mendiyen ibilli ziran, eta plakiya asi zanian zabelak tentatzen, jiratu ziran oso umore onian baserricho artara.

Echeke andria ate onduan zegon zai, ta parrez, parrez, esan ziyen:

—¿Onezkero gosetuko ziran? Pasa bitez salara, dena prestatua dago ta.....

Etzan gezurra; salaren erdiyan maya jarriya zegon estalki zuri chukuna gañian zeukala, aopala edo kuchare, tenedoriak, plater bana alde bakoitzian, labana, baso bi, bonbilla pincharrekua pitarrez betia, sei librako ogiya, gatza ta piperra.

Eseri ziran alkiyetan eta apaizak esan zuben:

—¿Zer ikusi bear ote degu emen?

Ontari etorri zan andre gajo ura larritua esanaz:

—Jaunak, ezin billatu det beok eman diraten gauza ura.

—¿Zer da bada?

—¿Zer dan?, ara: neronek sartu det eltzian azetan, eta zenbat kolpe egin diyotan nere burrunzizyakin, ezin arkitu det.

—Bañan, eltzian sartu al dezu?

—Bai, jauna.

—Etzan eltzian sartu biar.


—Nik uste nuben odolkiya edo chorišo muturra bezela egostekua zala; jaušen da lana!

—Ez estutu, andrechua; ori izan dedilla okerrik aundiyena; ekartzazu katillu aundi bana salda.

Beriala ekarri zituben.

Ala, *chocolate* koloreko aza salda artu ta jiratu ziran beren echietara naiko parra ta algara bidian egiñaz.

JOSÉ ARTOLA



EUSKERAZKO

KONTUAK

VI

Gizon bat lagun artian gustora egon bazan ere, azkenerako umoretsu jarri zan; eta urrengo egunian lanerako presik nola etzuben, ziyon bere artian:

—¿Zertan estutu? Noizik bein izaten da orlako atsegintasuna ta umoria; onezkero beste piska bat geyago eratia izango da onena.

Ala churrut eta churrut arituaz, azkenerako bete bete egin zan.

Oso beranduan eche aldera abiyatu zan, bere buruari bertsuak botiaz, eta bideko arbolai *ariyo jaunak* esanaz.

Pipa pistutzen ere asi zan, bañan nola aizia, zegon maiz samar, posporuak itzaltzen zitzaizkan. Ontan ikusten du parola bat pištua, iruritzen zayo gizonen bat dala, ta ala diyo:

—Aiskiria, ekatzu su piska bat, mesedez.....

Noizbait ere echera irichi zan, eta ateko aldabari eldu ta jo ditu bost kolpe.

Goitik irtenik bere andria, galdetzen du: ¿Zein da? Eta ala diyo:

—¿Emen bizi al naiz ni?

—Bai, emen.

Gero bere buruari ala diyo:

—Alare, alare, asmatu diat nere echia; *bien* lagun zarra, naikua egin dek ire mokollo ta guzi.

JOSÉ ARTOLA

EUSKERAZKO KONTUAK

VII

Agorreko Gureitze donearen egunian, kostako jendiak Lezo-ra etortzeko oitura du.

Urte batian etorri ziran beste askoren artian aita bat bere seme pocholo batekin.

Gazte au lenengo aldiz zetorren.

Goizian, elizako egitekuak osatu ondorian, joan ziran Errenterira; an tranbia jendez betia zegon, eta galdetu ziyon bertako gidatzalleari:


—Zu, *tranbero*, ¿zenbatian eramango gaituzu Donostira?

—Sei-na chakur aundi bakoitza.

—¿Ez alda merkiago?

—Ezin liteke.

Apana ugari orain, jende asko dabilkizutelako; merkatuko dezute, bai, arratzerako.



Sei-na chakur aundi bakoitza.

Ondoren irichi danian beste *tranbia*, ango aurreko gizonari diyo:

—Zu, zenbatian Donostira.

—Sei chakur aundi bakoitza.

—¡Arrano arranua!; ez dago emen gaur onik, denak elkar artu ta dabilta. Ondoren ala diyo: Eramaten bagaituzu errial bana, nik eman-godizut baso bat ardoren dirua zuretzat, bidian *trago* bat artzeko.

.

Gabian joan ziran Donostiko *Cafe Marina-ra* aita seme ayek, eta ešeririk deskantsu onian aitak diyo semeari:

—Mutill, urtian beiñ dek *Santrakus*, eta egun bat egun bat dek, gaur ez ziuagu kastuari begiratu bear; ernai begiyak ea gustoko gauzik ekusten dekan.

Bertako serbitzariyak batera ta bestera zebiltzan ontzi pillak eskue-tan zituztela; ayetan batek zeramazkiyen elatuak *mantecado* izena dute-nak. Ayek ikustiakin batian diyo semeak:

—Aita, arako *pastel zorrotz* oyek onak izango dira.

—Progatuko dizkiagu bada oyek ere.

Au esan eta batian jo ditu eskuz chalo batzubenk, serbitsariya etorri da ta galdetu du zer nai zuten.

Ekarri zaizkitsu tontordun zuri bi oyetakuak.

—Ongi da.

Pozez zeuden biyak abo zabalik esanaz:

Mutill, etziok ama begira, ¡arranua pola!

Ontan alderatu da serbitzariya elatu biyakin eta utzi ditu mai ga-ñean.

Mutill gisarajo ark ikusirik aurrean, artu du pozez bat eta oso oso-rik sartu zuben abuan kosk egiñaz; bañan ain otza nola zan ezin eutzi-rik abuan ¡burruuuu!..... ¡plast! bota zuben dena lurrera.

Aitak ikusirik semia larri zebilela bere abuari elduta, diyo errabiz:

—Ederki egin zaik, aize ematia aukaken.

JOSÉ ARTOLA



EUSKERAZKO

KONTUAK

VIII

Donosti inguruko erri koşkor batian, obiratzia edo entiarrua izaten zan bakoitzian, kapa aundiyak eta ginbel aundiyaguak jasten zituzten; ta ¿zer gertatzen zan? geyenak besteri eskatzen zizkaten erropa edo soña orlakuak.

Ikusgarriyak izaten ziran ango jaskerak, noiz nai ikusten zan gizon kankallu bat kapa motzakín, ala berian gizon motz bat, arrastaka bakalluen gisara zeramala; ta ezkerak inguruan arkitzea bear zituztenian.

Erropen billa etortzen ziran asko Donostiko jaun on batengana borondatetsua zala jakiñik.

Jaun onek beti ematen ziyen zetorren denai.

Eraman azkar egiten zuten, gañera chukuna; bañan ekarri..... nekez eta loiz betiak.

Jabe onek echian garbituta jasotzerako, etzan falta beste eskatzalle berri bat esanaz:

—¿Emen bizi alda On Erramun jauna?

—Bai, emen; ¿zer nai zenduben?

—Bada netorren kapa ta euriestalen billa; bigar obiratzia degu erriyan eta.....

—Tori bada, kapa, ginbela, ta euriestala, bañan ez geyago ekarri. Esan zayozu alkatiaeri erriyentzat ematen ditutala *erregalitzat*, conseju echian gordetzeko ta beartzen diran guziyak erabili ditzatela.

Ala egiñ ere zan; ordutik aurrera bandera maite bat bezela kucha batian irukitzen dute, ta ez da gorputzik ura jantzi edo progatu ez du benik.

Modu ontara jaun ura libratu zan ainbeste eskaleengandik.

Errege, erri koskor artara joan zanian ikustera, alkatia bera irten zan beregana, kapa ura zoñian zubela; orduan izena jarri ziyoten *Kapa erriala*, ta ez luteke truk egingo orain munduan dan onenengatik ere, zuloz betetako *erlikiya* ura.

JOSÉ ARTOLA

EUSKERAZKO KONTUAK

IX

Zapatari arlote bat eskatza batian aritzen zan lanian. Guztiz umore onekua, beti chistu jotzen edo kantari aritzen zan.

Inguruko jende guziya alaitzen zuben bere kantu ederrakin; doñu ta aide guziyak bazekizkiyen.

Bein, inguruko jaun aberatz batzubek, pentsatu zuten elkarren artian, diru mordoska bat bildu ta gizon langille arri ematia beraren pozgarri, esanaz:

—Gisarajoak merezi du orrenbeste; ori dalako, guztiyak poztutzen gaitubena; ta orain arte ain umorekua bada, gero diru aben jabe egitian, ¿zer kanta ederrak egingo ote ditu?

Bañan etzan ala gertatu, bada gizon ura, diruz jabetutako urrengo egunetik, mututu egin zan.

Lanian ari zan denbora guziyan bere diruz pentsatzen zegon, non gordeko ote zituben, edo norbaitek ostuko ote zizkan, edo non irabazi obia izango ote zuben, eta gero zeñi utziko ote zizkan; bere burua nazpillatzen zuben eta argatik etzuben kantatzeko umorerik.

Beste jaun ayek nabaitu zuten isiltasuna, baita elkarri esan ere:

—¿Zer gertatzen zayo kantariyari? len ain kantu politak eta orain baterez.

Egun batzubek igaro ziran isillik.

Alako batian, an dator zapatariya bere diruak artu ta jaun ayengan, esanaz:

—Jaunak, estimatzen det beok eman diratena, bañan len diru gabe obeto bizi nitzan; keska guchiyagokin eta umore onian; dirutu naizenian okerrago ta tristiago, beti pensaketan. Arbitzate beon diruak, ez det batere biarrik.

Eta poltsa lajarik alde egin zuben.

Urrengo egunetik sekulan bañon alayagua inguru guziya zeukan.

JOSÉ ARTOLA

EUSKERAZKO

KONTUAK

X

Agure zar bat euskeraz mintzatzen zan sagardotegi batian lagun ar-
tean; alderatu ziran bertara gazte batzuben eta asi ziran zarrari esaten:

—¿Ari gera beti bezela kontu kontari?

—Bai ta euskeraz.

—Ori da apana; ¿zer uste du, guk ere ez dikigula bedorrek beziñ
ongi, edo zer?

—Naiko lan.

—Bai gizona, bai,

—Ezdeztela bada euskera garbiyan esaten gauza bat.

—¿Zer gauza?

—Ara, auben. *Ardiyak mendiyán aboan ortzik gabe.*

—¿Esango ez degu bada?

—Ea, apustura chiki bat, baso bina sagardo denentzat.

—Badijua.

—Gañera zuek ondo esan ez ta nik bayetz.

Orduan gazte batek esaten du: Ardik mendin aboan ortzarik gabe.

—Ez dago ondo esana.

Bestiak: Ardiak mendian abuan ortz gabe.

—Eztare.

—¿Nola da bada?

—¿Nola dan?, onela: *Ardiyak mendiyán*, Begira zaidazute nola ez
detan ortzik abuan; orrengatik ongi esan det *ardiyak mendiyán* abuan
ortzik gabe; zuben esan dezute abuan ortzakin.

—Egiya da, aitona, arrazoya du.

—¡A, gisarajuak, zuben oraindik gaztechuak zerate zarrari erakus-
teko!

.....
¡Utzi beti euskaldun zarrari maisutasuna!

JOSÉ ARTOLA

EUSKERAZKO

KONTUAK

XI

Gizon bat oyeratu zan, luak artu zuben eta segiran asi zan ametzetan, modu ontara:

Igo zala zerura, ta topo egin zubela aita San Inaziyo.

Onek galdetu ziyon:

—¿Zer dakartsu adiskiria?

—Ni netorren jauna, galdeera bat egitera bedorri.

—Entzungo dizut.

—Jakin nai nuke, euskaldun jatorra izateko zer bear diran.

—Sei gauza: pelotariya, sagardo zalia, ibilkariya, anka aundiya, bizkar zabala, ta sugur luzia.

—Jauna aurreneko bostak baditut bañan.... sugurra motz samarra det, eta bedorri nola ain ona dan mezere egiñ bezait piska bat luzatzia.

—Erritarra zeralako egingo dizut bada; ta biatz biyakin eldu ziyon zendo, ta teiñkara aundi bat eman ziyon; gero ur gozo batekin ingurua igortzi ere bai.

Orañ zuaz emendik esan, eta bultzara aundi bat egiñik bota zuben zerutik beera.

Aidian zetorren ¡ai, ai! egiñaz, eta esanaz: A zer kankarrekuia artu bear detan lurra jotzian eta ¡zanba! jo zuben lurra.

Egiya zan, bada oyetik erori ta lurra jotako kanketakuak esnatu zuben, eta arkitu zan zugurra kolpatua ta ur gozua edo odolaz betia zeukala ta ala diyo:

—¡Zerutik erortzeko ez det bada miñ askorik artu!

JOSÉ ARTOLA